



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO URTARRILAREN 27AN
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2015/01/13KO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2015/01/13ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO URRIAREN 17AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURREAN, IGEPAK S.A. ENPRESAK TARTEKATUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.

Gai honen inguruan alkateak adierazi du txosten bat eskatu zela eta bertan ondorioztatzen dela jarduera handituko balitz arrisku maila ez litzatekeela handituko. Halaber, hau aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren txosten bat ere beharko dela esan du eta hirigintza batzordean aurkeztuko duela gaineratu du.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0171

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko urriaren 17an egindako bilkuran zera erabaki zuen hitzez hitz: IGEPAK, S.A. enpresari aerosolak ekoizteko bere jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitzezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeko udal baimena UKATZEA.

Geroztik, IGEPAK, S.A. enpresak, 2014ko abenduaren 10ean, 4042 sarrea zenbakiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren aurrean BERRAZTERTZE ERREKURTSOA tartekatu du.

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, berraztertze errekurtsa aztertu ostean ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andrari



Usurbilgo Udala



OBRA NAGUSIAK

IGEPAK ENPRESAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOARI TXOSTENA

KOKAPENA: Aitezarra 4, Zumartegi Industrialdea, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2014ko abenduaren 10^a

ESKATZAILEA: Mauro Tenés Iturri, IGEPAK S.A.-ren

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2014-171

AURREKARIAK

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingeniarietzak, IGEPAK S.A. enpresaren izenean, obra baimen eskaera egin zuen eta horrekin batera honako proiektua aurkeztu: "Proyecto de acondicionamiento de nueva nave de Igepak, en el polígono industrial de Zumartegi, Usurbil".
- 2014ko uztailaren 16an udal arkitektoak aurkako txostena idatzi zuen. Besteak beste, honakoak jaso zituen teknikariak:

*"Beraz, orain eskatzen diren obrek aipatu jardueraren handitzea ezartzeko egokitzapena dira. Erabileraren inguruan, aurrekarietan azaldu bezala 2014ko uztailaren udal arkitektoak Jarduera baimena eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idatzi zion, ezarri nahi den erabilera Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidarioen Testu Bateginak finkatutakoaren kontra doalako. Ondorioz, **egokitzapen obra hauek ez dira baimengarriak, baimendu ezin daitekeen jarduera bat egokitzea helburu izanik (ikus txostena).**"*

- 2014ko abenduaren 10ean Mauro Tenés Iturri jaunak, Igepak enpresaren izenean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu du. Horren bitartez, batetik, Igepak enpresaren erabilera Usurbilgo Arauek kontsolidatuta dagoela dio interesdunak; eta bestetik, Udalak hirigintza fitxa aldatzea komenigarria litzatekeela dio, eremuaren erabilera industriala (Igepak enpresarena barne) berariaz kontsolidatzeari begira.

Erlazionatuak:

Tomo 361630- 1971. urtea. Solicitud de licencia municipal para el establecimiento de una industria destinada a la fabricación y envasado de AEROSOLES en el Polígono Industrial 24.

Zenb. 330/sig. 0199-01: Aitezarra kalea 2an Aerosolen ekoizketarako jarduera baimena.

- 1996ko otsailaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak IGEPAK S.A. enpresari Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako iharduera instalatzeko baimena eman zion.



Usurbilgo Udala



- 1997ko ekainaren 17an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean iharduera ezartzeko eraikitze pabiloien lehen erabilera baimena eman zen.
- 2001ko ekainaren 12an Tokiko Gobernu batzordeak IGEPAK S.A. enpresak zumartegi Industrialdean Aitezarra kaleko 2an aerosolen ekoizpenerako jarritako iharduera irekitzeko udal baimena eman zuen.

HZ.07/2007-0067 – Aerosolak ekoizteko jarduera Aitezarra kalea, 4ko pabiloia zabaltzeko jarduera proiektua

- Eskera data: 2007ko otsailaren 16.
- 2008-02-11: Baimena bertan behera uzteko eskaera eta Jarduera proiektu berria baimen berri bat eskatuz.
- 2008-07-29: Tokiko Gobernu Batzarrak jarduera ezartzeko baimena.
- 2009-02-24: Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia irekiera baimena emanez.ç

HZ.07/2014-150 – Zumartegi Industrialdeko Aitezarra 4 pabiloian jarduera handitzeko obra proiektua:

- 2014ko apirilaren 16an ASMATU S.L.P. ingenieritzak IGEPAK enpresak Zumartegi Industrialdean duen jarduera handitzeko baimen eskaera egin zuen, honako proiektua aurkeztuz: "USURBILGO ZUMARTEGI INDUSTRIALDEKO IGEPAK-EN NABE BERRIAREN JARDUERA".
- 2014ko uztailaren 8an udal arkitektoak jarduera baimen eskaerari **AURKAKO HIRIGINTZA TXOSTENA IDATZI ZION, honakoa ondorioztatuz:**

"Ondorioz, ikusirik 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginak ez duela A-30 ZUMARTEGI eremuan industria kimikorik baimentzen eta IGEPAK S.A. enpresak 2014ko apirilaren 16an aurkeztu duen jarduera eskaerak industria kimiko jarduera barneratzen duela, **eskaerari AURKAKO hirigintza txostena idazten zaio.**"

TXOSTENA

Igepak enpresak jarduera handitu nahi duen pabiloia Aitezarra 4 kalean kokatzen da, Usurbilgo Zumartegi industrialdea, 2013ko irailaren 10ean BOG-en argitaratu zen Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, hiri



Usurbilgo Udala



lurzoruan, A-30 ZUMARTEGI eremuan, hain zuzen. Ereku horri dagokion A-30 ZUMARTEGI hirigintza fitxak honakoa finkatzen du bertan ezarri daitezkeen erabileren inguruan:

“3- ERABILERAK

Erabilera industrialak izango da, Atxega jauregiarena ezik. Eta ez da inolako jarduketarik onartuko leku itxietatik kanpo. Atxega jauregiaren erabilera merkatal-ostalaritzazkoa izango da. Gainerako HEUetan erabilerak ondoko hauek izango dira:

*Biltegiak, garajeak, tailer eta industri ez-kutsatzaileak. **Industria kimikoak eta farmaziazkoak ez dira baimentzen.***

Industria kimikoei dagokienez, berriz, indarrean den arautegi orokorrak hauxe dio:

4.2. ATALA. Industri eraikuntza

38. artikulua.

Arautegi honetako ondorioetarako, industri erabileratzen honakoa hartzen da, hots: Eraldatutako lehengaiaren erdieste, berreraldatze, biltze edo eta gordetze jardueretarako den lurzorua edo eta bertan burututako eraikinak.

Horren arabera, aztergai dugun jarduera ez da onargarria, horrek aerosolen garatzea, formulatzea eta biltzea barneratzen baititu. Arau subsidiarioek, ordea, ez dute berariaz esaten (lurzoruari buruzko legeak agintzen duen moduan) erabilera hori hirigintza-antolamenduarekin bat ez datorrenik; ez dute ez antolamenduz kanpokotzat hartzen ezta plangintzaren kontraktatzat ere.

Erabilerari dagokienez, hirigintza fitxak ez du adierazten IGEPAK enpresaren jarduera finkatuta dagoenik (interesdunak dioten moduan). Hortaz, aurreko paragrafoan aipatutako kontraesana interpretatzeko bidea alde batera utzirik, udal arkitektoaren txostenean (EE 2014-04-47) esandakoa berresten dut. Halere, esan beharra dut bidezkoa iruditzen zaidala interesdunak aurkeztutako errekursoaren zati bat onartzea. Hala, egungo jarduera finkatzeari begira, udalari ongi iruditzen bazaio, dagokion hirigintza fitxaren aldaketaren izapidetzea proposatzen dut.

Horretarako, antolamendu xehatua aldatu nahi dela kontuan izanik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren arabera ekin beharko zaio izapidetzeari:

30. artikulua.– Antolamendu xehatuaren aldaketa. Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Izapideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.

Ohartarazi nahi da, aldaketa hori izapidetu bitartean, indarrean dagoen arautegi xehatuari jarraiki, eremuan honako erabilerak baimenduko direla soilik: biltegiak (produktu kimikoei lotutakoak izan ezik), garajeak, tailer eta industri ez-kutsatzaileak.



Usurbilgo Udala



Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2014ko abenduaren 23an.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Joxean Erasun

Eskaria kontutan hartuz eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko urriaren 17an aerosolak ekoizteko jarduera haunditu ahal izateko Zumartegi industrialdeko Aitezarra kalea 4ko pabiloia egokitzeko udal baimena ukatuz hartutako erabakiaren aurrean, IGEPAK, S.A. enpresak tartekatutako berraztertze errekurtsioa aintzat EZ hartzea.

BIGARRENA: Udal arkitektoak emandako txostenean adierazitako kontutan izanik, egungo jarduera finkatze aldera, hirigintza fitxaren aldaketa izapidetzeko dagokion dokumentazioa prestatu eta aurkezteko proposatzea IGEPAK, S.A. enpresari.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

Idazkariak jarraian onartuko diren 2015eko diru-laguntzen oinarrietan egin diren aldaketa nagusienak zehaztu ditu. Alde batetik, zuriketari begira, kasu askotan hauek asko luzatzen direnez jardunaldiko kontabilitatea ezin itxi ibiltzen dira eta hau ez gertatzeko beranduenez urtarrileko azken Tokiko Gobernu Batzarretik pasatzea erabaki da. Bestetik, prozedurari begira, hau azkartze aldera diru-laguntzen batzordearen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpen pertsonalak egin ordez, langilegoa hautatzeko prozesuetan egiten den moduan. Azkenik, euskararen erabileraren inguruan ere aldaketa bat egin dela esan du.

Bestalde, nekazaritzako deialdiko oinarriak irekiegiak direla ikusten da, lehenengo aldiz bideratuko denez ikusi beharko dela dio zein den emaitza.

Azkenik, idazkariak gogoratu du Diru Laguntzen Plan Estrategikoa landu behar dela, legeak aipatzen duen betebeharrak bat dela eta horri heldu behar zaiola esan du.

3.- 2015EAN KIROL EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Ikusirik



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2015. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2014ko abenduaren 22ko Kirol Batzorde Informatzailean 2015eko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Hau guztia kontutan hartuta, honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2015ean Kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen diren diru izendapenak:

1	43	00	481	341	00	01	Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak
1	43	00	481	341	00	02	Gizon eta emakumezkoen berdintasun plana
1	43	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak
1	43	00	481	341	00	04	Kirol-teknikoen prestakuntza
1	43	00	481	341	00	05	Egitura sendotzeko laguntza
1	43	00	481	341	00	06	Gazteen arteko sustapena

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

4- 2015EAN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: GZ.42/2015-0004



Usurbilgo Udala



Ikusirik

Usurbilgo Udalak, elkarteek, bestelako erakundeek eta norbanakoek gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2015. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2015eko urtarrilaren 22an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzordean 2015. urtean gizarte zerbitzuen arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2015. urtean Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.8000.481.231.03.02. Diru-laguntza irekiak: elkarte asmoak.

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei lan eguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bosgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

5.- 2015EAN KULTUR EGITASMOAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2015-0031

Ikusirik



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Udalak, kultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2015. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean kultur egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, 2015eko urtarrilaren 19ko Kultura, Euskara eta Gazteria Batzorde Informatzailean 2015eko kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarrien berri eman zen.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2015ean Kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidari azaltzen den diru izendapena: 1.4000.481.334.00.03

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

6.- 2015EAN NEKAZARITZA EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2015-0036

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten nekazaritza arloko ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2015. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean nekazaritza arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta



Usurbilgo Udala



hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, urtarrilaren 12ko Nekazaritza eta Ingurumena Batzorde Informatzailean 2015eko nekazaritza egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak landu eta hauen berri eman zen.

Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Proposamen honi erantsirik doazen 2015ean nekazaritza arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1-6200-481-412-00-03-2015 (A 12/2015).

HIRUGARRENA: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

LAUGARRENA: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

BOSTGARRENA: Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

7.- 2015EAN INGURUMEN EGITASMOAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2015-0035

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten ingurumen arloko ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2015. urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2015. urtean ingurumen arloko egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri diru-laguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

Hori horrela, urtarrilaren 12ko Nekazaritza eta Ingurumena Batzorde Informatzailean 2015eko ingurumen egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak landu eta hauen berri eman zen.



Usurbilgo Udala



Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01) kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Proposamen honi erantsirik doazen 2015ean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen den diru izendapena: 1-6100-480-172-00-01-2015 (A 13/2015).

HIRUGARRENA: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

LAUGARRENA: Hogei laneguneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

BOSTGARRENA: Oinarrien berri kontu-hartzaileari ematea.

8.- 2014KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Noaua Kultur Elkarte (KE.01/2014-0065)
Einean Guraso eskola (KE.01/2014-0054)
Euskal Kantu Taldea (KE.01/2014-0043)
Bidean Agiñarron Herri Elkarte (KE.01/2014-0064)
Irri Abesbatza (KE.01/2014/0067)

Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, kultur elkarteek hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu ditu:

Noaua Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
55. Antzerkia	1.130,40	847,80 €	Gastuak: 1.607,20 Sarrerak: 282,00 Guztira gastua: 1.325,20 Soberakina: 194,60	282,60
56. Kulturaldia	4.272,93	3.204,70 €	Gastuak: 5.622,39 Sarrerak: 1.193,00	1.068,23



Usurbilgo Udala



			Guztira gastuak: 4.429,39 Soberakina: 156,46	
57. Pelikula, antzerkia, hitzaldi emanaldia	543,60	407,70 €	Gastuak: 837,20 Sarrerak: 565,00 Guztira gastuak: 272,20 49. eta 51. ekintzetako dif: 271,40 Guztira gastua 543,60	135,90
Guztira				1.486,73 €

Einean guraso elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
6. Sukaldaritza	60,00 €	45,00 €	EZ DA EGIN	-45,00
7. Biodantza	60,00 €	45,00 €	EZ DA EGIN	-45,00
8. Sabel Dantza eta Hip-Hop	60,00 €	45,00 €	Gastuak: 35,78 € 2. zatia 35,78- 45,00	-9,22
9. Idazketa kreatiboa	60,00 €	45,00 €	Gastuak: 35,78 € 2. zatia 35,78- 45,00	-9,22
10. Eskulanak	720,00 €	540,00 €	Gastuak: 628,29 € 2. zatia 628,29-540	88,29
11. Pintura	720,00 €	540,00 €	Gastuak: 628,29 € 2. zatia 628,29-540	88,29
12. Masajea	60,00 €	45,00 €	EZ DA EGIN	-45,00
13. Yoga	60,00 €	45,00 €	Gastuak: 35,78 € 2. zatia 35,78- 45,00	-9,22
14. Laboreak	60,00 €	45,00 €	Gastuak: 35,78 € 2. zatia 35,78- 45,00	-9,22
Guztira				4,70 €

Euskal Kantu Taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
1.- Kantu Ikastaroa	640,78 €	480,58 €	Gastuak: 960,00€ Sarrerak: 230,00 € Guztira gastuak: 730,00 € Soberakina: 89,22 €	160,20
2.- Kantujirak	1.572,82 €	1.179,62 €	Gastuak: 1.245,61€ 1. ekintzako soberakina 89,22 Guztira gastua: 1.334,83 2. zatia 1.334,83-1.179,62	155,21
3.- Kantu Ekimenak	786,41 €	589,81 €	Gastuak: 608,40€ 2. zatia 608,40-589,81	18,59
Guztira				334,00 €

Bidean Agiñarron Herri Elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu edo itzuli beharrekoa
46. Erregeen kabalgata 2015	738,00	553,50 €	Gastuak: 596,86 € 2. zatia 596,86-553,50	43,36
47. Gau Beltza	2.358,00 €	1.768,50 €	EZ DA EGIN	-1.768,50
48. Monologoak	1.470,60 €	1.102,95 €	EZ DA EGIN	-1.102,95
Udalari Itzuli beharrekoa Guztira				-2.828,09 €



Usurbilgo Udala



Irrii Abesbatza

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
58. Parrokiari zerbitzua + Santa Zezili eguna	477,00 €	357,75 €	Gastuak:479,95 €	119,25
Guztira				119,25 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontu hartzailearen ziurtagiria

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren kitapena egitea:

Eskatzailea	Ekintza	Udalari itzuli beharrekoa
Bidean Agiñarron Herri Elkartea	46,47,48	-2.828,09 €

Diru-itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXA: 2095 5069 07 1060024832
EUSKADIKO KUTXA: 3035 0140 30 1400900017

Bigarrena: Honako eskatzaileari kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Noaua Kultur Elkartea	55,56,57	1.486,73 €
Einean Guraso eskola	6,7,8,9,10,11,12,13	4,70 €
Euskal Kantu Taldea	1,2,3	334,00 €
Irrii Abesbatza	58	119,25 €

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:
1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Laugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Bosgarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.



Usurbilgo Udala



Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.